

HIZKUNTZEN EKOLOGIA

1. Azalpena

Saio honen helburuak dira, batetik, hizkuntzak ekologiarekin lotzea eta, bestetik, ikasleak hizkuntzen aniztasunaren inguruan gizartean diren topiko batzuei buruz pentsatzea.

2. Jarraibideak

“Badirudi dauden 6.000 hizkuntzetatik 3.000 inguru desagertuko direla mende honetan. Gutxi gorabehera bi astean behin hizkuntza bat hiltzea dakar horrek; historia ezagunean inoiz izan den erritmorik biziena. Oraindik ere, jendea ez da horretaz jabetzen, ez behintzat mugimendu ekologistarekin lotutako galtze biologikoaz jabetzen den bezala. Jende gehienak oraindik ez du hizkuntza-kontzientziarik.” (David Crystal “Hizkuntzaren iraultza”)

Zuek, hizkuntza-ekologistak zarete? Zergatik?

Gizartean batzuek uste dute hizkuntza guztiak berdinak direla eta guztiek bizirik irauteko baliabideak merezi dituztela. Beste batzuek, ordea, hizkuntzen aniztasuna kalterako dela uste dute, ez dute egokia ikusten. Zein dira batzuek eta besteek erabiltzen dituzten argudioak?

Bi talde egin. Hogei minutuz edo, talde batek hizkuntzen ekologiaren eta hizkuntzen aniztasunaren **alde** jartzeko argudioak prestatuko ditu. Bigarren taldeak argudioak eta arrazoiak bilatuko ditu hizkuntzen aniztasunaren **kontra** jartzeko, hau da, hizkuntzen ekologia ez babesteko. Argudioen zerrenda hasteko adibide pare bana:

Hizkuntza aniztasunaren ALDE:

- Hizkuntza aniztasuna aberastasuna da munduarentzat. Hizkuntzak galtzeak mundua pobreagoa egiten du, gizateria pobretzen eta ahultzen du.
- Hitzun komunitate batentzat bere hizkuntzan hitz egin ahal izatea bizitza kalitatea da.

Hizkuntza aniztasunaren KONTRA:

- Gaur egungo mundu modernoan, hizkuntza batzuk, beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira.

- Eleaniztasuna kaosa da eta erakundeetan diru asko gastatzen da itzulpenak egiten.

Argudioak prest dauzkazuenean defendatu gainerako ikaskideen aurrean. Entzundako argudioren batekin ados ez bazaude esan zergatik. Badago argudioren bat ikastalde osoaren adostasuna lortu duena?

3. Oharrak

3.1. Prestaketa

Taldearen dinamikaren arabera, egokia izan daiteke eztabaida bideratzeko arau batzuk aurretik adostea: parte-hartzeko txandak, denbora, hitza eskatzeko modua...

3.3. Material osagarria

- Zer iruditzen zaizkizue Tribuaren Berbak telebista saioan agertutako argudioak?

Tribuaren berbak: [Zergatik da garrantzitsua euskara?](#)¹ (2'00" -10'55")



- [Hizkuntza aniztasuna](#)² Lurdes Oinaederraren audioa.
- *“Hizkuntza bat salbatzeko, ez da hizkuntza bera salbatu behar, baizik eta haren habitata; hau da, haren garapen-eremua, existentziaren testuingurua.”*
Ados zaudete Albert Bastardas soziolinguistak esandako horrekin? Zein dira baieztapen honen ondorioak?

¹ <https://etbon.eus/m/tribuaren-berbak-1-6882103>

² <https://www.ikasbil.eus/eu/dokutekako-fitxa?articleId=16284366>

- **Aztarna linguistikoa. Aztarna ekologikoa** kontzeptua ingurumenarekin (basoa, ura, hiria, haizea...) dugun jokamoldea orekatua den ala ez neurtzeko erabiltzen da. Paralelismo bat eginez, **aztarna linguistikoa** aztertu dezakegu, hau da, norbanakoak edo pertsona multzo batek (herri batek, esaterako) hizkuntzekin duen jokaera neur dezakegu eta ikusi, erabileraren bidez, hizkuntza bakoitzari ematen dion bizi-indarra.